

# **M17: LGTBIQ+FOBIAREN AURKA, IKASGELA ASKE ETA ASKATZAILEEN ALDE!**

Autoritarismoaren eta faxismoaren eskutik mezu eta jarrera erreakzionarioak etengabe hedatzen ari diren garaiotan, adierazpen trans baztertzaileak geroz eta espazio gehiago hartzen ari dira gizartean, eta inpaktu zuzena izaten ari dira hezkuntza komunitatean ere. LAB eta STEILAS sindikatuok eta eskola inguruneetan hezkidetzak, sexu-hezkuntza eta pedagogia feministak lantzen ditugun eragileok, hezkuntza komunitateko ikasle antolakunde eta beste eragile batzuekin batera, gaiarekiko gure posizioa azaltzeaz gain, azken hilabeteetan hezkuntza eremuan emandako hainbat eraso transfobo salatu nahi ditugu, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuari ikasgelak ere espazio aske eta seguruak izateko ardura har ditzaten eskatu nahi diegu, eta horretarako bitartekoak jar ditzaten.

Azkenaldian, eraso transfoboak ugaritzen ari dira ikastetxeetan, eta ez dago ez baliabide egokirik ezta estrategia zehatzik ere horiek kudeatu ahal izateko. Are gehiago, EAEn eta Nafarroan badira, bai hezkuntza inguruneetatik kanpo baina baita hezkuntza inguruneetan berariaz eragiteko asmoz ere, era antolatuan gorroto diskurtsoak zabalduz jarrera trans baztertzaileak hauspotzeko ahaleginak egiten ari direnak. Horren adibide dira, besteak beste, Bilbon eta Donostian antolaturiko hitzaldiak eta ikastetxeetara bidalitako gutunak. Momentu horiek probestu zituzten hezkuntza eredu askatzaileen saiakeran dihardugunon aurka egiteko, gezurra eta alarmismo morala erabiliz eta nahasmendua sortuz. Egoera horren aurrean, ikasgelak espazio aske eta seguru egin nahi ditugunon arteko aliantza behar-beharrezkoa da; elkarrekin transfobiari mugak jarriko dizkiogu hezkuntza arautuan zein ez-arautuan.

Horrekin batera, Bernedoko begiraleei gure babes osoa adierazi nahi genieke, eta haien aurka erabili diren eraso eta kriminalizazio kanpainak salatu. Haurrekiko babesa diskurtso heteronormatiboaren ikuspegia zabaltzeko eta hortik at geratzen diren beste gorputz, identitate eta genero adierazpenak baztertze baliatu direla argi dugu. Beraz, gure bi-deak transfeminismorantz egiten jarraituko duela berretsi nahi dugu hemendik.

Heteroarauak markatutako ertzetatik irteteak indarkeria eta diskriminazioa dakartza hortik kanpo kokatzen diren pertsonentzat. Errua eta zigorra eragiten ditu, eta gorputz zein identitate jakin batzuk hezkuntza prozesuaren zentralitateak baztertzen ditu. Horregatik, ikastetxeetako korridoreetan, patioan, ikasgeletan, kalean zein komunikabideetan, egunero-egunero erasotzen gaituen norma bera zalantzan jartzeko ardura eta betebeharra dugu. Normalitatearen makineria modu esplizituan eta antolatuan iraunarazi nahi dutenen aurrean jarriko gara, ikasgeletan, kalean zein sareetan eraso hauek hartzen dituzten ha-maika formei erantzuteko prest. Aldi berean, hezkuntza inguruneetan jarrera transfoboak adierazpen mugatzaile eta kontserbadore nagusietako bat diren heinean, arrazakeriak ere presentzia nabarmena du gorakada erreakzionarioaren beste adierazpide esanguratsua gisa. Horrenbestez, beharrezkoa da indarkeria mota guztien aurrean ikuspegi integral eta sendo bat lantzea.

Hezkuntza Sailei, aldundiei eta EAEko zein Nafarroako gobernuei dei egiten diegu protokoloak berrikusi eta eguneratzera. Baliabideak eta estrategiak sistematizatu ditzatela eskatzen diegu, pedagogia feministak eguneroko jardun hezitzailean txertatu, espazioen eta esku hartzeen berrikusketa egin eta ikasgelak leku aske eta bizigarri izan daitezen proiektu integralak garatzeko. Era berean, beharrezkoa dugu hezkidetzak estrategia bat, azkenaldian gero eta ohikoagoak diren gorputz zein identitate ez normatiboekiko eraso baztertzailak berariaz lantzeko bitartekoak eskainiko dizkiguna.

Pedagogia feministak beharrezko tresna dira gehiengoari inposatzen zaion erregimena erreproduzitu ez dadin, eta normalitate eta arau sozial oro iraultzeko espazioak sortzeko. Horrez gain, ikasleak erasoetik babestetik haratago pentsatu behar dugu, pedagogia feministek begirada kritikoz jardungo duten ikas komunitateak eraikitzeke oinarriak ipintzen dituztelako. Aurretik urruntzen dena legitimatzeetik harago, logika dikotomikoak hautsi eta botere egiturak arrakalatzera jo nahi dugu. Hala egin ezean, ikastetxeek hegemoniak ezkutatzen dituen zapalkuntza estrukturalak befikotzen dituzten instituzioak izaten jarraituko dute. Azkenik, ezinbestekoa da bide hau sindikatu eta pedagogia transfeministak lantzen ari garen kolektibo desberdinekin egitea.

Udaleku, aisialdirako espazio zein ikasgelak aukerarako esparrurik eraldatzaileenak izan daitezkeelako, moralizazio eta puritanismoaren aurka, binarismoaren aurka eta heziketa antiarrazista eta transfeministaren alde!

**LAB / STEILAS / ARA! GORPUTZ / ARTAZIAKOOP. / DENBORA ESPAZIOA / EIHERA / EMAGIN / EMAIZE / GAZTE FEMINISTAK / HIRUKI LARROXA / IKAMA / PAREAN ELKARTEA / SORGINLORE / SUDERGINTZA KOOP.**

# **17M: CONTRA LA LGTBIQ+FOBIA, POR AULAS LIBRES Y EMANCIPADORAS!**

En un contexto en el que, de la mano del autoritarismo y el fascismo, se extienden constantemente mensajes y actitudes reaccionarias, los discursos transfobos y excluyentes están ocupando cada vez más espacio en la sociedad, con un impacto directo también en la comunidad educativa. Los sindicatos LAB y STEILAS, junto con agentes que trabajamos la coeducación, la educación sexual y las pedagogías feministas en los entornos escolares, queremos, junto a organizaciones estudiantiles y otros agentes de la comunidad educativa, expresar nuestra posición ante esta cuestión, denunciar las agresiones transfobas que se han producido en el ámbito educativo en los últimos meses y exigir al Departamento de Educación de la CAV y al Departamento de Educación de Navarra que asuman su responsabilidad para garantizar que las aulas sean espacios libres y seguros, poniendo para ello los medios necesarios.

En los últimos tiempos las agresiones transfobas están aumentando en los centros educativos, y no existen ni recursos adecuados ni estrategias concretas para poder gestionarlas. Es más, tanto en la CAV como en Navarra existen intentos organizados de alimentar posiciones transfóbicas difundiendo discursos de odio, tanto fuera de los entornos educativos como con el objetivo explícito de influir dentro de ellos. Ejemplo de ello son las charlas organizadas en Bilbo y Donostia, así como las cartas enviadas a centros educativos. Aprovecharon esos momentos para atacar a quienes trabajamos por modelos educativos emancipadores, utilizando la mentira, el alarmismo moral y generando confusión. Ante esta situación, es imprescindible construir alianzas entre quienes queremos que las aulas sean espacios libres y seguros; juntas pondremos límites a la transfobia tanto en la educación formal como en la no formal.

Asimismo, queremos trasladar todo nuestro apoyo al monitorado de Bernedo, denunciando las campañas de ataque y criminalización dirigidas contra ellas y ellos. Tenemos claro que la supuesta protección a la infancia se ha utilizado para expandir un discurso heteronormativo y excluir otras corporalidades, identidades y expresiones de género que quedan fuera de esa norma. Por ello, reafirmamos que seguiremos avanzando por el camino del transfeminismo.

Salir de los márgenes marcados por la heteronorma implica violencia y discriminación para quienes quedan fuera de ella. Genera culpa y castigo, y expulsa determinados cuerpos e identidades de la centralidad del proceso educativo. Por eso tenemos la responsabilidad y la obligación de cuestionar la misma norma que nos agrede cada día en los pasillos, en los patios, en las aulas, en las calles y en los medios de comunicación. Nos enfrentaremos a quienes quieren perpetuar de forma explícita y organizada la maquinaria de la normalidad, ya sea en las aulas, en las calles o en las redes, y estaremos preparadas para responder a las múltiples formas que adoptan estas agresiones. Al mismo tiempo, entendemos que las actitudes transfóbicas son una de las expresiones más limitantes y conservadoras en los entornos educativos, pero también el racismo tiene una presencia destacada como otra manifestación significativa de este auge reaccionario; por ello, es necesario trabajar una perspectiva integral y sólida frente a todas las formas de violencia.

Llamamos a los Departamentos de Educación, a las diputaciones y a los Gobiernos de la CAV y Navarra a revisar y actualizar los protocolos, a sistematizar recursos y estrategias, a incorporar las pedagogías feministas en la práctica educativa cotidiana, a revisar espacios e intervenciones y a desarrollar proyectos integrales para que las aulas sean lugares libres y habitables. Asimismo, necesitamos una estrategia coeducativa que nos dote de herramientas específicas para abordar las agresiones excluyentes hacia cuerpos e identidades no normativas, cada vez más frecuentes en los últimos tiempos.

Las pedagogías feministas son herramientas imprescindibles para crear espacios capaces de cuestionar toda normalidad y norma social, evitando reproducir el régimen impuesto a la mayoría. Además, debemos ir más allá de proteger al alumnado frente a las agresiones, porque estas pedagogías sientan las bases para construir comunidades educativas críticas. No queremos únicamente legitimar aquello que se aleja de la norma; queremos romper las lógicas dicotómicas y resquebrajar las estructuras de poder. De lo contrario, los centros educativos seguirán siendo instituciones que perpetúan las opresiones estructurales ocultas bajo las hegemonías dominantes. Finalmente, consideramos imprescindible recorrer este camino junto a sindicatos y colectivos que trabajan las pedagogías transfeministas.

Porque los campamentos, los espacios de ocio y las aulas pueden ser algunos de los espacios más transformadores, ¡contra la moralización y el puritanismo, contra el binarismo y a favor de una educación antirracista y transfeminista!

**LAB / STEILAS / ARA! GORPUTZ / ARTAZIAKOOP. / DENBORA ESPAZIOA /  
EIHERA / EMAGIN / EMAIZE / GAZTE FEMINISTAK / HIRUKI LARROXA /  
IKAMA / PAREAN ELKARTEA / SORGINLORE / SUDERGINTZA KOOP.**